IndyLan

Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union

# IndyLan informazio buletina – 2021eko uztaila

Ongi etorri **Mobile Virtual Learning for Indigenous Languages** (IndyLan) Erasmus+ proiektuaren hirugarren informazio-buletinera.

26 hilabeteko proiektu hau (2019-2021) Heriot-Watt Univertsitateak zuzentzen du eta koordinatzailea Katerina Strani doktorea da, Hizkuntza eta Kultura arteko Ikasketa Departamentukoa. Proiektuak lau herrialdetako bost bazkide batzen ditu (Erresuma Batua, Finlandia, Norvegia eta Espainia):

- Heriot-Watt University, Erresuma Batua (koordinatzailea)
- Cornwall Council, Erresuma Batua
- Saami Council Headquarters, Norvegia
- Learnmera Oy, Finlandia
- Asociación Moviéndote por la Integración y la Participación Ciudadana, Espainia

IndyLan proiektuaren barruan mugikorretarako aplikazio bat garatzen ari da, ingelesa, gaztelania, norvegia, suediarra eta finlandiarra diren hiztunei **gaelikoa, eskoziarra, kornikoa, euskara, galegoa** eta **saamia** ikasten lagunduko diena, guztiak ere gradu desberdinetan arriskuan daudenak. Gure proiektuko hezkuntza-tresna bereziki diseinatuta dago erabiltzaileek Europan desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzetako batzuk ikasteaz gain, hizkuntza horiek hitz egiten dituzten pertsonen kulturei buruz gehiago ikas dezaten.

IndyLan hizkuntza ikasteko tresna gamifikatua da, eta hiztegiko 4.000 elementu inguru izango ditu (terminoak zein esamoldeak) 100 bat kategoriatan bilduta. Aplikazioan erabilgarri egongo diren modalitateak hauek dira: Hiztegia; Esaldiak; Elkarrizketak; Gramatika; Entzumen ulermena; Kultura.

HERIOT WATT UNIVERSITY · Learnmera · CORNWALL COUNCIL · SÁMIRÁDDI · moviéndote

**Gure ikuspegia da IndyLan aplikazioak arriskuan dauden hizkuntzak ikasten eta suspertzen laguntzena da, gizarte eta ekonomia garaikideetan bizirik eta garrantzitsuak izan daitezen.**

Proiektuaren webgunea 11 hizkuntzatan dago eskuragarri. IndyLan aplikazioko hizkuntzei eta pertsonei buruzko atala du, bideo eta baliabideekin. Gure webgunean berriak eta eguneratzeak ere aurki ditzakezu, baita deskargatu daitezkeen produktuen zerrenda ere.

# Albisteak eta eguneratzeak

## Covid-19ren eragina gure proiektuan

Azken urtean urrutitik lan egiten jarraitu dugu eta bilera guztiak sarean egin ditugu. 2020ko ekaineko azken buletinetik, hiru aldiz bildu gara sarean: 2020ko irailean, 2020ko abenduan eta 2021eko martxoan, proiektuaren hirugarren bilera ofiziala izango zena, Bilbon. Proiektuaren bilera ofiziala 2021eko martxoaren 23an egin zen, Zoom bidez. Bilera horretan, **Bigarren Produktua (beta bertsioko aplikazioa)**, gure produktuen barne- eta kanpo-ebaluazioak eta dibulgazio-jarduerak eztabaidatu genituen. Halaber, **Hirugarren Produktuari (probako fase pilotua)** prestatzen hasi gara, eta aplikazioaren edukia amaitzeko egutegia berrikusi genuen.

*Bazkideak online bildu ziren proiektuaren hirugarren bilera ofizialerako 2021eko martxoan*



*Veronica Gelfgren, Learnmera Oy (Finlandia), aplikazioaren alderdi teknikoari eta ondorengo garapenari buruz eguneratzen gaitu*

Hasierako asmoa zen apirilean beta aplikazioa prest edukitzea eta ekainean abiaraztea. Hala ere, Covid-19 pandemiak ustekabeko atzerapen batzuk eragin ditu. Gure helburua da aplikazioa abuztuan probatzen hastea eta irailean ofizialki abiaraztea.
Berri guztiei buruz argitaratuko zaitugu!

**Udazkenean egingo ditugun tokiko eta nazioarteko dibulgazio ekitaldietara** gonbidatuko zaituztegu; xehetasunak emango dira.

## Begirada bat aplikazioari

Bazkideek hiztegiko 4.000 artikulu inguru itzuli dituzte, baita esaldiak eta elkarrizketak, gramatika-ariketak, kultura-orriak eta hizkuntza bakoitzerako zenbait ariketa ere. Hori ez da lan erraza izan, termino itzulezin asko (ez dago hitzik 'bai' edo 'ez' terminoetarako Korneikoan), itzulpen korapilatsuak dituzten terminoak ('zerbait izatea' gaelikoan) eta itzulpen bat baino gehiago dituzten beste termino batzuk (ikusi elurrezko terminologia Sámin) baitaude.

Orain aplikazioaren backend-a amaitzen ari gara, eta aplikazioaren barne-probak egiten ari gara. Hemen pantaila-argazki batzuk uzten dizkizuegu!






IndyLan

Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union




HERIOT WATT UNIVERSITY · Learnmera Learn & love languages · Cornwall Council · SÁMIRÁDDI SAMERÅDET SAAMELAISNEUVOSTO COIGI CAAMOB SAAMI COUNCIL · moviendote

IndyLan

Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union

## Dibulgazioa eta ekitaldiak

Saami Kontseiluko idazkari nagusiak, Áile Javok, proiektuko bazkideetako batek, Hizkuntza Indigenei buruzko UNESCOk zuzendutako ekitaldi batean aurkeztu zuen proiektua urtarrilean:

#ArcticConnections - Hizkuntza indigenak: Aro digitalean loratzen- YouTube



Katerina Stranik, proiektuaren koordinatzaileak, proiektua aurkeztu zuen Eskozia-Artiko Seriean: Tokiko Komunitateen eta Indigenen parte-hartzea, martxoan: https://youtu.be/gSAL0gMg-m0




Heriot-Watt Kulturarteko Ikerketa Zentroaren bi urtetan behingo sinposioa maiatzean egin zen, eta aurten cèilidh erako ospakizun bat egin zen sarean. Besteak beste, Steve Byrne, proiektuan lanean ari dena, Meg Bateman, Niillas Holmberg, Brian Ó hEadhra eta Fionnaig Nic Choinnich agertu ziren.

Ikusi ez baduzu, hemen irakur dezakezu: Intercultural Research Centre Symposium and Ceilidh 2021 | LifeinLINCS

*Steve Byrne ceilidh Kulturarteko Ikerketa Zentroaren sinposioan*

Aurtengo Speak Cornish week ekitaldiak sarean egin ziren, eta gure proiektuak Twitterreko zenbait jardueratan parte hartu zuen. Meur ras Kernow (=eskerrik asko, Cornwall)

## Hurrengo urratsak::

- **Barne-probak** eta backend-a hurrengo asteetan amaituko ditugu.
- Probako fasea, 3. Produktua osatzen duena, abuztuan hasiko da.
- **3. Produktua**, aplikazioaren proba pilotua izango da, 2021eko udan urruneko erabiltzaileek nahiz gure ekitaldi biderkatzaileetako parte-hartzaileek burutuko dute 2021eko udan.
- 2021eko udazkenean Cornwallen egingo den Proiektuko Azken Bileran, aplikazioa plazaratzea aurreikusita dago.

Aplikazioa doan deskarga daiteke mundu osoan, iOS eta Android-en. Hizkuntzak ikasteko aplikazio guztiak bezala, IndyLan beste hizkuntza eta kultura ikastaro batzuen osagarria da eta autoikaskuntzako materialaren zati gisa har daiteke.

IndyLan

Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union

***Gure hurrengo buletina 2021eko irailean izango da, beraz, adi egon!***

Jarrai iezaguzu **Twitter** bidez: https://twitter.com/IndylanP

Jarrai iezaguzu **Facebook** bidez: https://www.facebook.com/ProjectIndyLan

*Edozein zalantza edo iruzkin egiteko, jarri gurekin harremanetan info@indylan.eu helbidera*